

ARAZO EGOERA

ZER AURKITU DUGU NATURAN?

ARLOA: Nortasunaren eraikuntza eta ingurune fisiko eta sozialaren ezagueraren eremua eta nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren eta adierazpenaren eremua.

MAILA: 5 urte

2030 AGENDA KO HELBURUAK

Jarduera honekin 2030 Agendaren Garapen Iraunkorrerako Helburu hauek lantzen dira:



TESTUINGURUA

Ingurune fisikoa ezagutzeko, sistematikoki irteerak egiten ditugu, eskolatik gertu dagoen natur ingurune batera, eta maiz aurkikuntzak egiten ditugu: harriak, lumak, fruituak, hildako txoriak.... Eta aldaketak ere sumatzen ditugu: eguraldia, landaredia, lurra...

ARAZOA

Naturan aurkitu duguna zer den ezagutzea eta horren inguruan sortutako galderak ikertu eta erantzutea.

XEDEA

Naturan aurkitutakoa identifikatzea eta eskolako kideei zein guraso eta herritarrei jakinaraztea.

HELBURUAK

- Naturan gorputza kontrolatzen trebatzea, zentzumen pertzepzioa lantzea eta inguruaren ezaugarrietara egokitzea: mugimendua, oreka, koordinazioa.
- Lekuan lekuko bizitza mota ezberdinak behatu eta aztertzea eta bertako ezaugarriek bizidunengan duten eraginaz hausnarketa bideratzea.
- Basoetako, larreetako, putzukoetako... izaki batzuen artean dauden harremanak ezagutzen hastea.
- Naturan dugun eraginaz hitz egitea eta jarrera egokien inguruko lanketa bideratzea.
- Elementu eta bildumek zer ezaugarri dituzten jakitea; multzokatzeko, sailkatzeko, ordenatzeko eta zenbatzeko erlazioak ezartzea, pentsamendu zientifikoa lantzeko.

ATAZA

Gure naturguneei buruzko albumak edo liburuak edo horma irudiak osatzea argazki, marrazki eta testu motzekin, eta erakusgai jartzea ikastetxean: gelako zientzia txokoa, ikastetxeko erakusketa gunean, pasabideetan...

JARRAIBIDEAK

- **Baso eskola metodologia** erabiliko da:
 - Astero sistematikoki eskola inguruko naturgune batera irteerak egin, hiru orduz behintzat, behar diren segurtasun neurriak hartuta: basotxo, putzu, larre...
 - Haurrak jolas librean ibili.
 - Hurrek aurkitutako elementuak, aldaketak... ikerketa iturritzat hartu.
 - Irakasleak haurren behatzaile eta bidelagun izan behar du, proposamen irekiak eginez, beharrezkoa denean soilik esku hartuz, jarduera sortzaileak bultzatuz eta pentsamenduaren dimentsio guztiak piztuz.
- Ikasgelan natura eta **zientziari eskainitako txokoa sortu**, haurren, irakasleen eta gurasoen ekarpenekin: naturguneako aurkikuntzak eta argazkiak, gidak, albumak, kartak, DVDak...
- Naturan Hezten proiektuak gomendaturiko faunari buruzko **bideotxoak ikusi** eta horri buruzko elkarrizketa izan. Ondoren, inguruko faunaren izaki batzuk ezagutu eta gure naturgunearekin konparatu.
- Naturgunearen inguruko **ezagutza garatzeko**, ingurune sozialarekin harremanetan jarri eta gelara etortzeko gonbita egin: guraso, basozain, teknikari, irakasle, zientzialari, kontserbazionista...
- Gure naturgunea zaintzeko **jarrera egokiez hausnarketa egin** eta zerrendatu.
- Jasotako informazio, argazki, marrazki eta izenekin **albuma edo liburua osatu**. Horma irudiak egin eta erakusgai jarri.